



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2015eko abenduaren 30a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 16:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 17:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Juan Vicente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Amagoia Iribar Manzisidor, Miriam Uranga Egurza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri, kanpoan dagoelako, eta beraz, ez du bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Juan Vicente Lasa Karrikaburu Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentzialaren berri ematea eta hark zinegotzi kargua jabetzan hartzea, egoki bada; Juan Vicente Lasa Karrikaburu EUSKAL HERRIA BILDU (EHBildu) koalizio politikoko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Amaia Dorronsoro Portularrumeren ordeiz.
- 2.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren honako ohiko bilkuretako akten zirriborroak: 2015eko irailaren 29koa, urriaren 27koa eta azaroaren 24koa.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 14/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 15/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
- 5.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Arkupe elkarteak aurkeztu duen eskariari buruz. Arkupek eskatzen du udalbatzarrak 2006ko martxoaren 28ko bilkuran hartutako erabaki bat ofizioz berrikustea.
- 6.- Onartzea, egoki bada, aldaketa bat egitea animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzan.
- 7.- Amagoia Iribar Manzisidor zinegotziak (EHBildu) bere karguari uko eginez aurkeztu duen idatziaren berri ematea.
- 8.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- JUAN VICENTE LASA KARRIKABURU ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI IZENDATUA IZAN DELA ADIERAZTEN DUEN KREDENTZIALAREN BERRI EMATEA ETA HARK ZINEGOTZI KARGUA JABETZAN HARTZEA, EGOKI BADA; JUAN VICENTE LASA KARRIKABURU EUSKAL HERRIA BILDU (EHBILDU) KOALIZIO POLITIKOKO ZINEGOTZI IZANGO DA, BERE KARGUARI UKO EGIN DION AMAIA DORRONSORO PORTULARRUMEREN ORDEIZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Juan Vicente Lasa Karrikaburu Orioko Udaleko zinegotzi izendatua izan dela adierazten duen kredentziala eman du Hauteskunde



Batzorde Zentralaren presidentek; Juan Vicente Lasa Karrikaburu EUSKAL HERRIA BILDU koalizio politikoko zinegotzi izango da, bere karguari uko egin dion Amaia Dorronsoro Portularrumeren orde.

Idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Juan Vicente Lasa Karrikaburuk eginak dituela bateraezintasun arrazoiei buruzko eta jardueri buruzko aitortpena eta ondasunen aitortpena. Beraz, legearen arabera, karguari dagozkion betebeharrak fideltasunez betetzearen agindu edo zina alde aurretik eginda, Juan Vicente Lasa Karrikaburuk Orioko Udaleko zinegotzi kargua hartzen du, EUSKAL HERRIA BILDU koalizio politikoaren izenean. Bertan diren zinegotziek ongietorria ematen diote.

2.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN HONAKO OHIKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK: 2015EKO IRAILAREN 29KOA, URRIAREN 27KOA ETA AZAROAREN 24KOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

EHBildu talde politikoko bozeramaile Emeterio Iribarrek hartzen du hitza eta adierazten du ohar bat egin nahi diola 2015eko urriaren 27ko ohiko udalbatzarraren aktaren zirriborroari: gai-zerrendako 4. puntuan, bere talde politikoak emandako botoaren azalpenean, asko laburtu da Amaia Dorronsoro zinegotziak egin zuen parte-hartzea; egindako azalpenarekin Amaia Dorronsorok nabarmendu nahi zuen EAJ talde politikoak jarrera kontraesankorra izan duela ordenantza fiskalen gaiarekin: jarrera bat zuen 2011-2015 agintaldian eta beste bat du orain.

Orain talde politikoko bozeramaile Miriam Urangak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela irailaren 29ko eta urriaren 27ko aktak onartzeko bozketan, bi akta horien zirriborroak ez dituelako jaso udalbatzarra egin eta hilabeteko epean.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu), Amagoia Iribar (EHBildu) eta Priete (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **BI ABSTENTZIO**]:

1.- ONARTZEA udalbatzarrak 2015eko irailaren 29an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA udalbatzarrak 2015eko urriaren 27an egindako ohiko bilkurako akta, Emeterio Iribar zinegotziak egindako oharra gehituta.

Era berean, udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



ONARTZEA udalbatzarrak 2015eko azaroaren 24an egindako ohiko bilkurako akta.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 14/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 14/2015 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 77.410 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2015eko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldua (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Amagoia Iribar (EHBildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 14/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 77.410 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAUURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Ez da prozedura egokia erabili espedientearen onarpena diktaminatzeko: kreditua aldatzeko espedienteak aldaketak eragiten baditu Udalaren hainbat areatan, gaia dagokion batzorde informatzailean aztertu behar da aldez aurretik, udal taldeek aukera izan dezaten beren ekarpena egiteko.
- Nahiz eta kale-garbiketaren kontratazio publikoa izan Udalaren lehentasunetako bat 2015eko ekitaldi ekonomikoan, lehiaketa publiko hori abian jarri beharrean, aurrekontu-partida horretako 13.500 euro erabili dira kreditua aldatzeko espediente honetarako.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 15/2015 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 15/2015 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 107.160 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2015eko abenduaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2015eko aurrekontuari dagokion 15/2015 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 107.160 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.



e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Amagoia Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta honako hau adierazten du:

- Orain dela bost urte Orioko gazte talde batek Etxeluze eraikina okupatu zuen, bertan gaztetxe bat egiteko; eraikin hura ordenamendu urbanistikotik kanpo zegoen orduan eta, gaur egun, Udalaren ordenamendu urbanistikoaren barruan dago.
- 2011-15 agintaldian Udalak erosi eta kontsolidatu egin zuen eraikina.
- Eraikina birgaitzeko udalbatzar honetan hartutako erabakia aurrerapauso bat da, Etxeluzeko gaztetxea indartzeko.
- EHBilduk uste du Orioko gazte talde batek egindako lan etengabearen fruitua dela erabaki hau eta gazte horien ahalegina txalotu nahi du.

5.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ARKUPE ELKARTEAK AURKEZTU DUEN ESKARIARI BURUZ. ARKUPEK ESKATZEN DU UDALBATZARRAK 2006KO MARTXOAREN 28KO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKI BAT OFIZIOZ BERRIKUSTEA.

Idazkaritzak 2015eko azaroaren 20an emandako txosten juridikoaren berri jakiten du udalbatzarrak. Txostena ARKUPE ELKARTEAK Orioko Udalari egin dion eskaerari buruzkoa da; Arkupek eskatzen du baliorik gabe uzteko udalbatzarrak 2006ko martxoaren 28an hartutako erabaki hau: Onartzea Orioko Udalaren eta Inmobiliaria Orio Txoko Txiki SL eta Desarrollo y edificaciones Mendibil SL entitate merkantilen artean sinatuko den gestio urbanistikorako hitzarmena, Orioko udal planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko –Munto– 38 aparkaleku-plaza erosteko. Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakidun Epaitegiak 40/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsioari buruz emandako 149/2014 zenbakidun epaia betetzeko egin da txosten juridikoa.

Idazkaritzak argitu nahi du ARKUPE ELKARTEAK eskatzen diola Orioko Udalari *que proceda a la nulidad de los acuerdos plenarios —de 28 de marzo de 2006 y 28 de mayo de 2011 parece ser;* baina, idazkariak hitzarmenari erantsitako diligentzian jaso duenez, Arkuperen idatzian aipatzen den 2011ko maiatzaren 28ko erabaki hori ez da existitzen.



IKUSITA udal idazkaritzaren txostenak jasotzen dituen aurrekariak (hitzez hitz jasota):

AURREKARIAK

Aipatutako udalbatzarraren erabaki hori berrikusi eta baliorik gabe uzteko eskaera bere testuinguruan kokatzeko, aipatu behar da Orioko Udal Planeamendurako Plan Orokorraren 8. sektoreari –Munto– dagozkion garapenerako planeamendu urbanistikoko eta gestio urbanistikoko tresna guztien kontra errekurtsu administratibo eta administrazioarekiko auzi-errekurtsu ugari aurkeztu dituztela hainbat entitatek (besteak beste, espediente honetan interesatutako entitateak berak); Muntoko 8. sektore horretan Eroski kooperatiba elkarteak sustatutako jarduera komertziala dago kokatuta, gaur egun funtzionatzen ari dena (aipatutako 38 aparkaleku-plazek Eroskiren jarduerari ematen diote zerbitzua, Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra ezarritako araudi urbanistikoa betez).

Era berean, bai eraikitze baimena eta bai Eroski supermerkatuaren jarduera-baimena errekurritu egin ziren administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.

Ondoko zerrendan jaso dugu hitzez hitz jarduera komertzial horrekin zerikusia duten administrazioarekiko auzi-errekurtsoen laburpen bat:

'Procedimiento Ordinario nº 845/08

Recurso Contencioso-Administrativo instado por EzkerBatua-Berdeak contra el acuerdo plenario de 4 de marzo de 2.008 de aprobación definitiva del Plan Parcial del Sector 8 "Munto" seguido ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco como Procedimiento Ordinario nº 845/08 y Recurso de Casación interpuesto ante el Tribunal Supremo contra la sentencia recaída en dicho procedimiento.

Procedimiento Ordinario nº 1356/08:

Recurso Contencioso-Administrativo instado por Dendartean-Asociaciones de Comerciantes de Gipuzkoa, de la cual es integrante la propia ARKUPE ELKARTEA, contra el acuerdo de aprobación del Plan Parcial del Sector 8 "Munto", seguido ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco como Procedimiento Ordinario nº 1.356/08.

Procedimiento Ordinario nº 93/09

Demanda de JUICIO ORDINARIO Nº 93/09 seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 1 de Donostia-San Sebastián, instado por D.



Iñaki García Arambarri contra el acuerdo de aprobación definitiva del Proyecto de Reparcelación del Sector 8 "Munto" de las NNSS de Orio.

Procedimiento Ordinario nº 767/09

Recurso Contencioso-Administrativo instado por EzkerBatua-Berdeak contra el Decreto de Alcaldía por el que se concedió licencia de edificación en la Parcela B-5 del Sector 8 "Munto" seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de esta ciudad, como Procedimiento Ordinario nº 767/09.

Procedimiento Ordinario nº 856/09

Recurso Contencioso-Administrativo instado por Dendartean-Asociaciones de Comerciantes de Gipuzkoa contra el anterior Decreto de Alcaldía en concesión de licencia de edificación en la Parcela B-5 del Sector 8 "Munto" seguido ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3 de esta ciudad, como Procedimiento Ordinario nº 856/09.

Procedimiento Ordinario nº 297/10

Recurso Contencioso-Administrativo instado por Ezkerra Batua - Berdeak contra la Orden de 19 de febrero de 2.010 del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca estimatoria en parte del Recurso de Alzada interpuesto por el Ayuntamiento de Orio contra la Resolución de URA de 15 de Abril de 2009, seguido ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco como Procedimiento Ordinario nº 297/10.

Procedimiento Ordinario nº 506/13-2ª

Recurso contencioso-administrativo formulado por la Asociación "ARKUPE" de Orio ante la desestimación presunta del Recurso de Reposición interpuesto contra el acuerdo del pleno municipal de 5 de febrero de 2013, por el que se aprobó con carácter definitivo el Plan Parcial del Sector 8 "Munto", que se sigue ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, como Procedimiento Ordinario núm. 506/13-2ª.

Procedimiento Ordinario nº 40/14

Recurso contencioso-administrativo formulado por la Asociación "ARKUPE" de Orio ante la desestimación presunta de la solicitud de tramitación de expediente de nulidad respecto de los acuerdos de aprobación del Convenio en su día suscritos para la enajenación directa de 38 garajes en el aparcamiento subterráneo bajo la parcela deportiva sita



en el Sector 8 "Munto", que se sigue ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 2 de esta ciudad como Procedimiento Ordinario nº 40/14.'

Errekurtso hauen guztien azken emaitza gisa, esan daiteke EAEko Auzitegi Nagusiak zuzenbidearen araberrakotzat jo zituela bai egiturazko antolamendu urbanistikoa eta bai Eroski supermerkatua kokatua dagoen Orioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorren barneko 8. sektoreari -Munto- dagokion antolamendu xehea, eta ez zituela inongo momentutan indargabetu errekurritutako egintzak.

Bestalde, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3. zenbakidun Epaitegiak, 2015eko ekainaren 30eko 120/2015 zenbakidun epaiaren bidez, zuzenbidearen araberrakotzat jo du Eroski Kooperatiba Elkarteak eskatutako obra- eta jarduerabaimena, eta, beraz, atzera bota du Arkupe elkarteak jarritako errekurtsoa. Epai hori apelazioan errekurritu dute interesatuek EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean, eta apelazioa oraindik erabakitzeke dago.

Behin administrazioarekiko auzi-errekurtso guztiak ahituta, nahi zuten emaitzarik lortu gabe, interesatuek 2006ko hitzarmen horren onarpena baliorik gabe uzteko ahalegina egiten dute, nahiz eta hitzarmen horren berri hasieratik zekiten eta inoiz ezeren erreparorik jarri ez dioten; horrela, berriro oztopatu nahi dute beren ustez lehia komertziala egiten dien jarduera hori ezartzea, nahiz eta indarrean dagoen planeamendu urbanistikoan ondo oinarrituta dagoen eta, gainera, 2014ko maiatzaz geroztik funtzionatzen ari den.

KONTUAN HARTUTA udal idazkaritzaren txostenak araubide aplikagarriari buruz dioena (hitzaz hitz jasota):

ARAU BIDE APLIKAGARRIA

Batez ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen honako artikulua hartu behar ditugu kontuan: 102. artikulua, xedapen eta egintza deusezak berrikusteari buruz; 106. artikulua, berrikustearen mugei buruz; eta 62. artikulua, erabateko deuseztasunari buruz:

'102. artikulua. Xedapen eta egintza deusezak berrikustea

1. Herri-administrazioek, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, aldeko irizpena eman ondoren, deuseztat joko dituzte, beren kabuz eta edozein unetan, administrazio-bidea amaitu duten administrazio egintzak edo epe barruan beren aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 62.1 artikuluan jasotako kasuetan.



2. Era berean, herri-administrazioek, beren kabuz eta edozein unetan, eta Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, aldeko irizpena eman ondoren, deuseztat jo ditzakete administrazio xedapenak 62.2 artikuluan jasotako kasuetan.

3. Administrazioaren kabuz berrikusteko eskumena duen organoak, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emailearen irizpen beharrik gabe, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak azalduta, interesdunek egindako eskaerak izapidetzeko ez onartzea erabaki dezake honako kasu hauetan: eskaerak 62. artikulua araberaren deuseztat jotzeko arrazoiaren batean oinarritzen ez direnean, edo argi eta garbi funtsik gabeak direnean, edo, mamiari dagokionez, funtsean berdinak diren beste eskaera batzuk ezetsita daudenean.

4. Herri-administrazioek xedapen edo egintza bat deuseztat jotzeko ebazpenean zehatz dezakete zein kalte-ordain jaso behar duten interesdunek, betiere, lege honen 139.2 eta 141.1 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira; xedapena denean, iraun egingo dute xedapen horren ondorioz emandako egintza irmoek.

5. Prozedura, administrazioaren kabuz hasten denean, iraungi egingo da, baldin eta hasi denetik hiru hilabeteko epea betetzen bada ebazpenik eman gabe. Prozedura interesdunak eskaturik hasten denean, berriz, ezetsizat joko da administrazio isiltasunaren ondorioz.

106. artikulua. Berrikustearen mugak

Berrikusteko ahalmenaz baliatzerik ez dago, akzioen preskripzioa, epeen amaiera edota bestelako gorabeherak direla eta, berrikusketa hori ekitatearen, fede onaren, herritarren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.

62. artikulua. Erabateko deuseztasuna

1. Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta:

a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.

b) Gaia edo lurraldea dela eta, argi eta garbi eskumenik ez duten organoek eman badituzte.

c) Ezinezko edukia badute.

d) Zigor-zuzenbideko arau-hauste badira edo hauste horren ondorioz eman badira.



e) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira.

f) Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak nahiz presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmen edo eskubideak eskuratzeko bide ematen badiete, horretarako funtsezko betekizunak ez dituztenei.

g) Lege-mailako xedapen batean berariaz ezartzen bada.

2. Erabat deusezak izango dira honako administrazio-xedapen hauek ere: konstituzioa, legeak edo administrazioaren goragoko mailako xedapenak hausten dituztenak; legez arautu beharreko gaiak arautzen dituztenak; eta zehatze-xedapen kaltegarrien edo norbanakoen eskubideak murrizten dituzten zehatze-xedapenen atzeraeragina ezartzen dutenak.'

KONTUAN HARTUTA udal idazkaritzaren txostenak jasotzen dituen kontsiderazio juridikoak (hitzez hitz jasota):

KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK

I.- XEDAPEN ETA EGINTZA DEUSEZAK BERRIKUSTEAREN MUGEI BURUZ (HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREN 106. ARTIKULUA).

Errekurtsogileak eskatzen dio Orioko Udalari 'baliorik gabe uzteko' udalbatzarrak 2006ko martxoaren 26an hartutako erabakia (onartzea 38 aparkaleku-plaza besterentzeko hitzarmena sinatzea), beren ustez, erabat deusez delako.

Administrazio-egintzak ofizioz berrikustea oso kontu delikatua da, dagoeneko ezarrita dauden egoera juridikoen kontra egiten duelako. Oinarritzeko bi printzipio juridikoren arteko talkak –legalitatearen printzipioa eta segurtasun juridikoarena– kontu eta ponderazio handiz aritzea eskatzen du, oreka-puntu egokia aurkitzeko eta ebitatzeko, alde batetik, abantailazko egoera ilegítimoak sendotzea, eta, bestetik, kontrako arriskua, 'summum ius, summa iniuria' esanak aipatzen duena; alegia, batzuetan, legea hitzez hitz aplikatzea izan daitekeela injustiziarik handiena.

Hori kontuan hartuta, 30/1992 Legearen 106. artikulua ezartzen du berrikusteko ahalmenaz baliatzerik ez dagoela, akzioen preskripzioa, epeen amaiera edota bestelako gorabeherak direla-eta, berrikusketa hori ekitatearen, fede onaren, herritarren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.



Gure kasu honetan, ematen du garbi dagoela erabakia baliorik gabe uztea ez dela egokia, ikusita erabakia hartu zenetik pasatako denbora (9 urte eta 8 hilabete), zeren-eta, hori egitea ekitatearen edo herritarren eskubideen aurkakoa izango bailitzateke; hori guztia, indarrik gabe utzi nahi den egintzaren legezkotasunaren eztabaidan sartu gabe.

Hori oinarritzeko, argigarriak dira Auzitegi Gorenak emandako epai hauek, modu laburtuan eta hitzez hitz aipatzen ditugunak:

'La STS de 23-10-2000 (Casación 3079/1995), de la que extracto el siguiente párrafo, entendiendo las referencias hechas a los arts. 109 y 112 de la Ley de Procedimiento Administrativo de 1958 a los actuales arts. 102 y 106 de la Ley 30/92: "En este sentido debemos destacar que la Sala «a quo» no declara que haya prescrito la acción de nulidad, que de acuerdo con la jurisprudencia invocada por la Asociación Empresarial recurrente es imprescriptible. Pero la acción de nulidad es improcedente cuando por el tiempo transcurrido su ejercicio resulte contrario a la equidad o al derecho de los particulares. La sentencia estima, y debemos ratificar su apreciación, que el tiempo transcurrido entre los actos impugnados en virtud de la acción de nulidad (acuerdos de 4 de febrero y 28 de mayo de 1986) y el momento en que se promovió dicha acción (28 de febrero de 1990), esto es un lapso de tiempo de tres años y nueve meses, no es conforme al principio de seguridad jurídica, aludiendo también a las exigencias de la buena fe, aunque sin imputar a la Asociación Empresarial recurrente una mala fe basada en los motivos de su actuación. Es evidente que el artículo 112 autoriza la consideración del tiempo transcurrido para el ejercicio de la acción de nulidad, con independencia de los conceptos de prescripción y caducidad, como causa que puede motivar que este ejercicio resulte contrario a la equidad o al derecho de los particulares (prescindiendo de la contradicción con la ley, que en este caso no tiene aplicación).

La seguridad jurídica exige que se mantengan las situaciones que han creado derechos a favor de sujetos determinados, sujetos que confían en la continuidad de las relaciones jurídicas surgidas de actos firmes de la Administración, que no fueron impugnados en tiempo y forma, por lo que había razón para considerarlos definitivos y actuar en consecuencia. Ello no quiere decir que la acción de nulidad no pueda ejercitarse contra los actos firmes de la Administración. Puede promoverse contra actos firmes, pero su ejercicio es improcedente cuando con ello se vulneran las necesidades derivadas de la aplicación del principio de seguridad jurídica, principio que está indisolublemente ligado al respeto a los derechos de los particulares, expresamente mencionado por el artículo 112 de la LPA como límite al ejercicio de la potestad revisora de la Administración establecida en el artículo 109"



Tribunal Supremo (Sala especial del art. 61 de la LOPJ)

Sentencia de 7 mayo 1992. RJ 1992\10673

El régimen privilegiado de la acción de nulidad tiene la contrapartida de esta limitación procesal, como también tiene, en el seno del procedimiento administrativo y del ulterior control judicial, la posible utilización del límite o excepción contenido en el art. 112 de la Ley de Procedimiento Administrativo, que da prevalencia al principio de seguridad jurídica sobre el de legalidad al impedir de forma tajante las facultades de anulación y revocación («no podrán ser ejercitadas», dice el precepto) cuando por prescripción de acciones, por el tiempo transcurrido u otras circunstancias su ejercicio pugna con la equidad, el derecho de particulares o las leyes.

Ahora bien, conviene puntualizar que la tesis de la citada Resolución de 24-10-1989, del Ministerio de Hacienda no se rechaza aquí o no debe ser rechazada en términos absolutos, pues si en la fase que cierto sector de la doctrina y algunas sentencias del Tribunal Supremo han calificado como de «revisión informal», la Administración activa impulsora del procedimiento del art. 109 apreciase, con razonable fundamento y motivación, que no existe en modo alguno, de manera ostensible e indubitada, motivo alguno de nulidad radical que conduzca a la pretendida declaración de nulidad, nada le impide resolver denegando la prosecución del trámite, sin someter a la consulta del Consejo de Estado una petición de nulidad carente de la más mínima base, ya que de lo contrario se convertiría al Alto Cuerpo Consultivo en Órgano a disposición de los particulares ejercitantes de dicha acción y no del Gobierno y de la Administración, en la línea de las SS. 20 febrero y 30 noviembre 1984 (RJ 1984\972).

Tribunal Supremo (Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección 2ª)

Sentencia de 17 enero 2006. RJ 2006\2741

La revisión de los actos administrativos firmes se sitúa entre dos exigencias contrapuestas: el principio de legalidad, que postula la posibilidad de revocar actos cuando se constata su ilegalidad, y el principio de seguridad jurídica, que trata de garantizar que una determinada situación jurídica que se presenta como consolidada no pueda ser alterada en el futuro. El problema que se presenta en estos supuestos es satisfacer dos intereses que son difícilmente conciliables, y la solución no puede ser otra que entender que dichos fines no tienen un valor absoluto.



La única manera de compatibilizar estos derechos es arbitrando un sistema en el que se permita el ejercicio de ambos. De ahí que en la búsqueda del deseable equilibrio el ordenamiento jurídico sólo reconozca la revisión de los actos en concretos supuestos en que la legalidad se ve gravemente afectada y con respeto y observancia de determinadas garantías procedimentales en salvaguardia de la seguridad jurídica, y todo ello limitando en el tiempo el plazo para ejercer la acción, cuando los actos han creado derechos a favor de terceros.'

II.- 2006KO MARTXOAREN 28KO UDALBATZARRAREN ERABAKIAREN HAINBAT ALDERDI.

II. 1. Prozedura.

Jakinarazi behar dugu, parte interesatuak alegatzen duenaren kontra, 2006ko martxoaren 28ko dataz, udalbatzarrak erabakia hartu zuenean, indarrean zegoen araudiak ez zuela exijitzen izaera urbanistikoko hitzarmenak publikatzea.

II. 2. Udalaren araudi urbanistikoa betetzen duen erabakia.

Erabaki horrek bete egiten du planeamendu urbanistiko orokorrak ezarritako obligazioa, aparkalekuen estandarrari dagokionez, erosteko obligazioaren bidez eta aparkalekuak xede horretara bideratuz.

Eztabaidagarria da, beraz, partikularrentzako eskubideak deklaratzeko dituen egintza baten aurrean gauden ala obligazio bat onartzeaz ari garen.

Zentzu horretan oso argigarria da udal arkitektoak 2012ko urrian emandako txostena, gaia argitzeko eskatu zitzaiona eta honakoa ondorioztatzen duena: aipatutako erabaki horrek udalaren araudi urbanistikoa betearazten duela.

II. 3. Mendibeltz futbol zelaiaren azpiko 298 garaje-plazak besterentzeko publizitatea.

Orioko Udalak hainbat sustapen-kanpaina egin ditu Mendibeltz futbol zelaiaren azpiko 298 garaje-plazak saltzeko.

Horrela, 2008. urtean, garaje horien erosle posibleen eskariak erregistratu zituen, interesatuta zenbat jende egon zitekeen baloratzeko. Erregistro horren emaitzaren argitan, udalbatzarrak, 2008ko irailaren 23an hartutako erabakiaren bidez, lehiaketa publikoa iragarri zuen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, 128 garaje-plaza saltzeko



Prozedura horren bidez eskari guztiak ase ziren eta, gaur egun, salgai daude garajeen erdia baino gehiago, orduko baldintza berberetan.

Beraz, baliorik gabe utzi nahi diren egintzen bidez ez zaio inolako kalterik sortu, ez baliogabetzea eskatzen duen elkarteari eta ez hirugarrenei ere, zeren-eta, nahiz eta 38 garaje-plaza adskribatu erabilera komertzialerako, horrek ez du galarazi garaje-plaza bat erosi nahi zuten guztiek horretarako aukera izatea; areago, gaur egun oraindik badaude garaje-plazak salgai.

II. 4. 62.1 artikulua erabateko deuseztasuna.

Ez du ematen baliatutako deuseztasun-kausa bat datorrenik 62.1 artikuluan aurreikusten direnekin. Errekurso-egileak a) atala aipatzen du, 'Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egitea', baina ez du konstituzioaren babesa behar lukeen eta kaltetuta legokeen inolako eskubide edo askatasunik aipatzen. Kontrakoa gertatu da: ez da inolako eskubiderik kaltetu, zeren-eta inork ez baitu galdu aparkaleku-plaza erosteko aukera.

e) atala ere aipatzen du: 'Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik ematea'. Hitzarmena ez argitaratu izana eta besterentzea Ondasunen Erregistroak ezarritako prozedura ustez bete gabe egin izana ez da organo kolegiatuen borondatea eratzeko oinarritzko arauen infrakzio bat; eta, lehen hitzarmena onartu zenean, hura argitaratzea ez zen nahitaezkoa.

KONTUAN HARTUTA udal idazkaritzaren txostenak jasotzen duen ondorioa (hitzez hitz jasota):

ONDORIOA

1.- Aztertzen ari garen gai honetan, uste dut ezin dela udalbatzarraren erabakia berrikusteko ahalmena erabili, denbora asko pasa delako (udalbatzarraren erabakia 2006ko martxoaren 28koa da), eta ekitatearen, fede onaren eta garajeen erosleen eskubideen kontrakoa litzatekeelako; horrez gain, segurtasun juridikoaren printzipioa larriki urratuko luke, eta printzipio horrek nagusitu behar du, informe honetan jasotako jurisprudentziaren eta kontsiderazio juridikoen arabera.

2.- Aipatu diren deuseztasun-kausak ez datoz bat 30/1992 Legearen 62.1 artikuluan aurreikusitakoekin, gorago azaldutako arrazoiengatik. Era berean, kontuan hartu behar da baliogabetu nahi den erabakiak:

a) Indarrean dagoen Planeamendu Urbanistikotik eratorritako obligazio bati erantzuten dio.



b) Ez zaio inolako kalterik sortu, ez baliogabetzea eskatzen duen elkarteari eta ez hirugarrenei ere, zeren-eta, nahiz eta 38 garaje-plaza adskribatu erabilera komertzialerako, horrek ez du galarazi garaje-plaza bat erosi nahi zuten guztiek horretarako aukera izatea; areago, gaur egun oraindik badaude garaje-plazak salgai.

3.- Nolanahi ere, udal organo eskudunak –hau da, udalbatzarrak– erabakiko balu erabaki hori berrikusteko prozedurari hasiera ematea, segitu beharreko prozedura honako hau litzateke: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 102.1 artikuluan ezarritakoa:

'102. artikulua. Xedapen eta egintza deusezak berrikustea

1. Herri-administrazioek, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik, eta Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak, halakorik bada, aldeko irizpena eman ondoren, deuseztatzen joko dituzte, beren kabuz eta edozein unetan, administrazio-bidea amaitu duten administrazio egintzak edo epe barruan beren aurkako administrazio-errekurtsorik izan ez dutenak, 62.1 artikuluan jasotako kasuetan.'

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, udal idazkaritzak 2015eko azaroaren 20an emandako txostena ikusita eta Hirigintza eta Ingurumeneko batzorde informatzaileak 2015eko azaroaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Emeterio Iribar (EHBildu), Lasa (EHBildu), Igoa (EHBildu) eta Amagoia Iribar (EHBildu), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priete (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- ATZERA BOTATZEA OSORIK Arkupe elkarteak Orioko Udalari egin dion eskaera, baliorik gabe uzteko udalbatzarrak 2006ko martxoaren 28an hartutako erabaki hau: Onartzea Orioko Udalaren eta Inmobiliaria Oriko Txoko Txiki SL eta Desarrollo y edificaciones Mendibil SL entitate merkantilen artean sinatuko den gestio urbanistikorako hitzarmena, Orioko udal planeamendurako Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko –Munto– 38 aparkaleku-plaza erosteko. Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakidun Epaitegiak 40/2014 administrazioarekiko auzi-errekurtsori buruz emandako 149/2014 zenbakidun epaia betetzeko hartzen da erabakia, erabaki honen azalpenean agertutako arrazoiengatik.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.



6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALDAKETA BAT EGITEA ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzailearen 2015eko abenduaren 4ko bilkuran aztertu da eta diktaminatu da aldaketa bat egitea ordenantzaren 16.1 artikuluan ('Bide publikoan txakurrak edukitzea'). Diktaminatutakoaren arabera, honako salbuespen hau sartuko da artikuluko horretan, hitzez hitz:

Salbuespen gisa, arriskutsu ez diren txakurrak eta erasoengatik aurrekari erregistraturik ez duten txakurrak libre ibili ahal izango dira, Diketrik Ortzaika artean eta Osasun etxetik hondartza artean; neguan 18:30-10:00etara, eta udan 19:30-10:00etara. Hondartzan, Aste Santutik urriaren 1a arte, ondoko orduetan bakarrik baimenduko da txakurrak ibiltzea: 21:00etatik 06:00etara.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2015eko abenduaren 4an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMABI BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantzaren lehen aldaketari, goian jasotako terminoetan.

2.- Aldaketa hori **JENDAURREAN JARTZEA**, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez, interesatuek aukera izan dezaten udalbatzarraren aurrean oharra eta iradokizunak aurkezteko, hogeita hamar laneguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era; jendaurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

7.- AMAGOIA IRIBAR MANZISIDOR ZINEGOTZIAK (EHBILDU) BERE KARGUARI UKO EGINEZ AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Udal idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Amagoia Iribar Manzisidor (EHBildu koalizio politikoaren zerrendako laugarrena 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan, eta zinegotzi hautatua) idatzia aurkeztu duela, udalbatzarrari zuzendua, eta bertan honako hau adierazten duela: **UKO EGITEN DIOLA** Orioko Udaleko zinegotzi karguari, arrazoi pertsonalengatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikuluan ezarritako prozedura betez. Idatzian



Amagoia Iribar Manzisidorrek eskatzen dio udalbatzarrari bere uko egitea onartzea eta ordezkoa izendatzea, Hauteskunde-Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarrak, bestalde, Aizpea Ubegun Manterolak aurkeztutako idatziaren berri jaso du. Aizpea Ubegun Manterola EHBildu koalizio politikoaren zerrendako seigarrena zen 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeetan eta, idatzi horren bidez, **ONARTU EGITEN DU** Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea, Amagoia Iribar Manzisidorren ordezkari, EHBildu koalizio politikoa ordezkatzeko, Hauteskunde Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera; adierazten du, baita ere, ez zaizkiola aplikagarri Hauteskunde-Araubide Orokorreko Lege Organikoaren 6., 177. eta 178. artikuluetan jasotzen diren ezin aukeratua izateko arrazoiak. Hori guztia, Aizpea Ubegun Manterolari Orioko Udaleko zinegotzi hautatu izaera aitortzen dion kredentziala emateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, indarrean dagoen araudian ezarritakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Amagoia Iribar Manzisidorrek EHBildu koalizio politikoa ordezkatzuz betetzen duen Orioko zinegotzi karguari uko egitea eta honako idatziaren **JAKINAREN GAINean GERATZEA**: Aizpea Ubegun Manterolaren idatzia, Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea onartuz, Amagoia Iribar Manzisidorren ordezkari, EHBildu koalizio politikoa ordezkatzeko.

2.- BIDALTZEA udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzeko ziurtapena Madrilgo Hauteskunde Batzorde Zentralaren Presidenteari, Aizpea Ubegun Manterolari Orioko Udaleko EHBildu koalizio politikoko hautagaitzako zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala eman dezan, kargu hori betetzeko, hutsik baitago Amagoia Iribar Manzisidorrek aurkeztu duen eta udalbatzarrak onartu dion kargu uzteagatik. Hori guztia, Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 2003ko uztailaren 10ean emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

8.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Amagoia Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EHBilduren izenean, eta bertaratuei adierazten die segurtasun-arazoak daudela Kale Nagusiaren goi aldean, Kakioneko etxearen ondoan, egin den pilotaleku txikian.



Gotzon Igoa zinegotziak hartzen du hitza eta alkateari galdera egiten dio udaletxeko balkoian lehen jarrita zegoen eta herriko birziklapen-tasaren berri ematen zuen panel informatzaileari buruz. Alkateari proposatzen dio berriro jartzeko panel hori balkoian eta proposatzen dio, baita ere, 'hondakin-mahaiaren' bilera deitzeko. Hori guztia, honako helburuarekin: ahalik eta azkarren iristeko %65eko birziklapen-tasara.

Azkenik, Jose Angel Iparragirre zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta Kirol batzordeko buru Eugenio Cotado zinegotziari eskatzen dio berehala deitzeko batzorde horren bilkura bat, EHBildu, Orain eta PSE-EE-PSOE talde politikoei aurrez egin zuten eskariari erantzunez. Eugenio Cotado zinegotziak erantzuten dio, esanez, egingo duela batzordearen deialdia, kirol teknikariak arauzko oporrak bukatu eta lanean berriro hasten den bezain azkar.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei, urte berri ona opa die eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,